

**ZENBAT BURU**

Aintzane Larrea

**ERREPORTAJEA**

Ehiza denboraldia  
martxan da

**GEHIGARRI**

**BEREZIA**

Berogalluak

**BERBETAN**

Peio Aizpurua,  
Bide-Eginieko  
partaide

**KIROLA**

Jose M. Arakistain,  
HAUNDIko  
entrenatzailea

**KULTURA**

VI. Komiki  
lehiaketako  
irabazleak

# BARRREN

1999ko azaroaren 5a  
VII. urtea - 297. zkia

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A



Danba! Danba!  
**Ehiza, afizioa baino  
zerbait gehiago**

**"Ehiztari txarrak eskupetari errua"** (Esaera zaharra)

# 2000ko Gida Komertziala

# Gida

# Komertziala 2000

Zurekin pentsatuta  
gida praktikoa,  
hurbila,  
eta konpletoa  
prestatzen hasi gara.



**BARREN**  
ASTEKARIA

1999ko Gidan agertu ez bazinen  
edo daturen bat oker bazegoen

deitu **943 74 37 04** telefonora



AINTZANE LARREA

# Tuk tek tak.., hadsion

**H**emen daukagu ate joka 2.000. urtea. Eta geuk zabalduko dizkiogu atea 2.000. urteari, geu izango gara leku-ko, laster bertan izango dugu-eta. Berriz ere batetik kontatzen haste hori arraro egingo zaigu eta arrarago data ipintzean 00 ipintzea. Ukaezina da urte berezia izango dela; ordenagai-luak zoratu egingo omen dira, eta aurki euroa izango dugu esku artean, honek ere makina bat buruaste sortuko dizkiguna. Baina erlojuak tik, tak, tik, tak aurrera darrai, denbora aurrera doa eta askotan erloju hori geratu nahi izan arren, abiadan segitzen du, eta segitzen dugu, denboraren hatzaparretan harrapaturik baikaude.

Garai berriak datozkigu, eta betitasunen aurrean beldur izaten gara askotan baina era berean ezagutzeko irrikan ere egoten gara. Ezagutuko dugu, bada, hainbestetan imajinatu izan dugun urtea.

Bestalde, guztiok antzera jarraituko dugu, egunerokotasunean murgildurik, askotan zein egunetan eta zein urtetan bizi garen ez dakigula. Eguneroko kezkak, ardurak, lana... dena berdin baina tik, tak, tik tak, erlojuak gelditu gabe. Ezin gara atzean geratu, ez dago atsedean hartzeko astirik. Badator 2000. urtea eta tren horretara igo behar dugu ihes egiten utzi gabe. 2000. urtea, 2001, 2002, 2003... denak segida.n. XXI. mendean sartuko gara aurki (2001. urtean). Zientzia fikzioa, jadanik ez da fikzioa izango, errealitatea baizik. Aprobetxa ditzagun

bada, ordu, minutu eta segundu guztiak. Aprobetxa ditzagun bada, aurrerapen guztiek, eta bizi ditzagun garaiek eskaintzen dizkiguten abantaila eta erosotasun guztiak. Lehena pasatu da, geroa oraindik ez da etorri, oraina da daukaguna eta hortxe dago, hementxe dago.

## ulladator 2.000.

1111<sup>9</sup>182 Eta Itpen hoproltara sgo behar dugu ihes egiten ulzi gabe".

Zein urruti ikusten nuen; non egongo ote nintzen, nola egongo ote nintzen, norekin biziko ote nintzen 2000. urtean galdetzen nion neure buruari, sekula helduko ez zelakoan. Tik, tak, tik, tak, hemen dago, hemen nago, hemen gaude.

Hau al da imajinatzen zenuen 2000. urtea?

Migel Riosek aspaldiko kantu batean 2000. urtea bazetorrela zioen eta zalantzan jartzen zuen nolakoa izango ote zen mundua urte horretarr, zorionsua, Ieku beldurgarria edota bizitzarik gabekoa. Ez dakit zuek zer pentsatuko duzuen baina argi dago nahiz eta aurrerapen handiak egon, oraindik ere gauza asko aldatu beharko lirakeela. Orohar bizitza kalitate hobea daukagulakoan nago, baina bestalde mundua hankaz gora dagoela dirudi: hainbeste gatazka, injustizia, diferentzia, ezadostasun, intolerantzia... 2000. urtea hor daukagu, eta oraindik ere egunkarietan hainbat eta hainbat berri hunkigarri irakur ditzakegu. Tik, tak, tik, tak, aurrera goaz, baina... norabide egokian al goaz? Horra hor nire zalantza.

Urte berezi hori benetan berezia izan dadila denontzat eta urte berezi horretan hilabete eta egun bereziak izan ditzazueta opa dizuet.

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun ingurtt aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

## Birrak eta Barreak



# BaRREN



Nafarroa enparantza, 2  
20870 ELGO1BAR  
re **943 74 41 12**  
Publizitatea:  
943 74 37 04  
Faxa: 943 74 37 04

E- naila: barren@topagunea.com  
Heibide informatikoa:  
www.sihardunscom/barren

AR IITARATZAILEA	Elgoibarko Izarra
LACLINTZAILEA	Elgoibarko Uda[
KA 1ETARIAK	Ion Eugi, Aster Orbea
Pu 1LIZITATEA	Maitane Cid
141A CETATZAILEA	Bea Ansola
AD AINISTRAZIDA	Amaia Martin
GE ENTZIA	Rafa Alvarez, M. Angeles Ortuoste.
Ko _ADORATZALEAK	Ainhoa Andonegi, Aitor Argarate, Idoia Arozena, Aitzol Arriola, Martin Dominguez, Jon Eugi, Juanito Gorostiza, Arnaitz Gorriti, Ion Gurruizaga, KOKOE, Imanot Larrañaga, Aintzane Larrea, Ion Loiora, Ongarri Zine Kluba, Irtigo Otaño, Jon Pell Uriguen, Iban Urizar, Amaia Urzelai, Maite Vallejo, Lourdes Zubiaurre.
Az kLEKO ESALDIA	Gotzon Garateren liburutik
13A sIAKETA ARDUPADUNA	fmanol Larrañaga
1NPRIMATEGIA	Gertu Koop. E.
TIRADA	4.000 ale
LEGE GORDAILLIA	SS-1.038/92
IS51	1139-1855

*Elgoibarko Udalak, Eusko  
Jaurjaritzako Kultura*



*girarte-ekintra  
obra sozial*

**f** ADANOBAT

**• - GOITI**  
GRUPO DANOBAT

BARRENeK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adieraziakoen erantzukizunik. Eskulitz guztiek ondo identifikatuta egon behar dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN** eta **telefono zenbakia**.



• Hen•itar batek honako kexa hau argitaratzeko eskatu digu: "trenaren galtetik San Roke auzora joateko zubiaren eta tren geltokiaren tartean dagoen aparkamentuari buruzkoa da. Izan ere, trafiko seinale batek galerazten duen arren, turismoak ez diren automobilerik aparkatzen dute bertan. Bestalde, auto gidariek edozein moduz aparkatzen dute; autoa gurutzatuz, paretetik urrunegi utziz, edo aparkalekuko sarrera eta irteera oztopatuz. **Berez leku estua dagoenez, kontu gehiagorekin aparkatzeko eskatu nahi nieke gidari**

**hauei. Eta arazoak bere horretan jarraitzen badu, udaltzainek esku hartu beharko luke,** hau ez baita lehenengo aldia norbaitek aparkaleku hortako egoera hobetzeko eskatzen duena".



## BA ESAN?



**Amaia  
Martinez de Bujo**  
Errotatxoko kidea

*Errotatxo Drogen Prebentziorako Elkarteak antolatuta, HIESari buruzko prebentzio astea izango da azaroaren 10etik 13ra bitartean Elgoibarren. Errotatxokoek HIESaren tratamenduak eta bere ondorioak aztertuko dituzte bereziki. Prestatu dituzten ekintzen berri izateko Amaia thiez De Bujo, Errotatxoko kidearekin hitz egin dugu.*

**- HIESaren prebentzio astearen barruan gai ezberdin bat aukeratzen duzue urtero. Zein da aurtengoa?**

- Prebentzio Astearen helburu nagusia HIESaren prebentzioari buruzko informazioa zabaltzea da eta urtero gai hat jorratzen dugu. Aurten, HIES tratamenduak eta bere ondorioak izan da aukeratu dugun gai nagusia. Iaz, berriz, HIESa zuten gaixoekin erregistro bat egiteko asmoaren aurka aritu ginen, intimitatearen aurkako araua dela iruditzen zai-gu-eta. Momentuz, erregistroaren asuntua martxan dago Estatuan, baina gurea moduko beste ahalegin batzuri esker, geldirik dago Euskal Herrian.

**-Asko aurreratu da HIES gaixoen tratamenduan, ezta?**

- Bai, HIES gaixoen bizi kalitatea izugarri hobetu da, baina oraindik asko dago egiteko. Izan ere, tratamenduak gero eta hobeak direla entzuten dugu sarritan, baina jende askok tratamenduekin hasi eta bi urtera berriz gaixotzen dira eta ondorio kaltegarriak izaten dituzte. Jende askok ez daki horren berri eta gure helburua informazioa eskaintzea da.


**- Etorkizunari begira zein da erronka nagusia?**

- Duela 5 urtetik ona HIESaren arazoa ikusteko modua erabat aldatu da. Jendeak lasaiegi hartzen ditu HIESarekin loturik dauden gaiak, arazoa konpondu batego moduan. Kaleko jende arrunta HIESa gaixotasun kroniko hat dela sinistuta dago. Duela urte batzuk HIESaz gaixoak nola hiltzen ziren ikusten genuen nonahi eta horrek jendea inpresionatu egiten zuen. Egun ordea, ez da horrelakorik ikusten tratamendu berriei esker. Hala ere, arazoak bere horretan darrai eta herritarra lre manten araztea da gure asmoa. erlaxatuegi daudela nabari baitugu.



### EIRTEURRENA

*1998ko azaroaren 7an, 71 urte zituela hil zen  
IÑAKI ETXEZARRAGA BILBAOren oroimenez  
URTELIRRENEKO MEZA izango da  
Parrokian larunbatean, hilaren 6an, arratsaldeko 19:30etan.  
Joaten zaretenoi eskerrak alde z aurretik.*



# EHIZA, afizioa baino zerbait gehiago

*Pasa den urriaren 12an hasi zen ehiza denboraldi berria.*

*Ehizak, afizioa baino gehiago, benetako grina sortarazten du inguruotan eta hiru hilabetez tiro hotsa besterik ez dugu entzungo basoetan. Ehiza denboraldi berri bakoitzaren etorrerarekin, ehizaren aldeko eta kontrako hainbat iritzi entzuten dira. Guk eztabaida horretan ez sartzea erabaki dugu, aitzitik, ehizak horrelako grina sortzeko zer berezitasun daukan aztertzea egokiagoa iruditu zaigu, agian hobeto ulertuko ditugulakoan ehiztariak. Helburu honekin Aitor Garitagoitia ehiztari gaztearekin egon gara eta elizari buruzko hainbat xehetasun eman dizkigu.*



**E**hiza afizio bat baino zerbait gehiago dela ez dago dudarik, Horren adibide garbiena, erdipurdiko ehiztari gutxi aurkituko ditugula da. Ehiztari guztiek barru barruan sarturik daramate ehiztari sena, gutxik hartzen dute shobby bat bailitzan bakarrik. Ildo beretik, ehiztari askok abuztuan lan egin eta azaroan hartzen dituzte oporrak ehizara joan ahal izateko. Bestalde, ehiztariak, benetako ehiztariak eta 'eskopeteroak' bereizten dituzte. Benetako ehiztariak, egan ikusten duten edozerri tiro egiten diotela 'eskopeteroek' salatzen dute, ehiztarien izen ona zikinduz.

## **Ehiztari baten egunerokoa**

Aitor Garitagoitia 25 urteko ehiztaria da. 13 urte zituenean aitarekin hasi zen ehizan eta gaur egun bere zaletasun nagusia da. "Afiziva sartu jatan eta gaur arte, izugarri gustatzen

jata txakurrekin ehizan ibiltzia mendixan. Batzutan tirorik botatzeko aukerarik gabe jun bihar izan naiz etxera, baina bilaketiakin ere disfrutatzen dot, hori bai, pieza bat botatzia moduko satisfakziorik ez dao". Aitorrek bere ehiza egun bat nolakoa izaten den azaldu digu: "Pasa dan domusantu eguneko zubixa aprobe txauz, adibidez, Hueseako koto batera jun nintzan lagun azpeitxiar batekin. Kotuan ibiltzeko urteko kuotia ordaindu bida, baina bertako la-saitasunak merezi dau, Euskal Herriko mendixak txakurrez eta ehiztariz beteta daoz-eta. Goizeko 6:30ak inguruan jaiki, aterpetxia utzi eta todoterrenuan koto-raino daozen ordu eta erdixa in gendun. Goizeko 8:30ak inguruan, hau da, eguna irekitzen dabanian hasi ginan ehizan zeozer gosalduta ostantian. Egunsentixa oso momentu politxa izaten da. Goizeko 10:00ak edo 11:00ak ingururako pausu asko in ostian, gorputzak zeozer jateko biharra izaten dau. Eguerdia ingurura arte beste saio bat in, eta txakurrak kantsatzen hasten dianian utzi itxen dou. Guztira, 6 edo 8 orduko ehiza saivak itxen ditzugu".

## **Uso pasea eta txakurrekin egiten den ehiza**

Uso pasean eta oilagorretan ibiltzen dira ehiztari elgoibartarrak nagusiki. Oso ehiza mota desberdinak dira. Izan ere, ehiztaria ez da bere lekutik mugitzen uso pasean, punteria kontua dela esango genuke. Oilagorretan eta galeperretan, beniz, txakurraren lana ezinbestekoa izaten da. Aitor oilagorretan ibiltzen da udazkenean eta galeperretan neguan, "3 se-



*Aitor Garitagoitia 13 arte biltzen da ehizan, eta gaur egun ia-astehurerojoaten da.*

**"Ilso pasean ehiztaria ez da bere lekutiK mugitzen, punteria kontua da. Oilagarroetan eta galeperretan, berriz, txakurraren lana funtsezkoa da".**





ter ingles ditzut, eta txakurrik gabe ezin leike ollagorretan ibili. Txakurrak karilto handixakin tratau bihar dia. Digestiva inda euki daixen ehiza egunan aurreko iluntzian ematen diuet jaten. Bestalde, egunian bertan piticlo elektronikoko bat itxen daban aparatua jartzen diuet lepuan. Nundik nora dabilzan jakiteko balixo dau. Izan ere, txakurrek oilagorra nun dauan izkutauta antzematen dabenian ez dia lekutik mobitzen eta ebiztariak txorixak egan ihes in baino lenao heldu bihar dau".

Aitorrek aipatu digunez, ehiza denboraldi irauten duen 3 hilabeteetan, astebu-

ruero saiatzen da ehizara joaten, "ostiraietan lanetik irten eta mendira juteko desiatzen eoten naiz. Ni ehizara ez juteko elurra in biharko luke, elurra in prohibixuta dao-eta ehizan itxia".

**Ez da kirol merkea**

Ehiza ez da batere kirol merkea. Ehiztari batek ginxierteko gastu batzuk egin behar ditu nahitanahiez: aseguru (4.000 pta. inguru), lizentzia (2.000 pta.), kartutxoak (50 pta. bakoitzak), eta osasun errebisioa eta arma baimena 5 urtero berritu behar dira (10.000 pta.). Eskopeta batek, berriz, 100.000 pta balio ditu batez beste, garestiagoak eta merkeagoak baitaude. Bestalde, ehiztari batzuk ehiza barrutiak edo kotoak alokatzen dituzte oilagorrek, galeperrek eta erbiak ehizatzeke, eta honek izugarri garestitzen du ehiza. Zaletu batzuk 4 milioi pta. ordaintzera heldu dira koto bakar bategatik. Koto hauek denboraldi bakoitzean subastatzen dira, eta diru gehien eskaintzen duenak eskuratzen du bertan ehizatzeke eskubidea. Ehiza postuekin ehiza barrutien antzera gertatzen da. Postu hauek usoak ehizatzeke erabiltzen dira. Elgoibarren ez dago kotorik eta ezta ehiza posturik ere. Beraz, ehiztari elgoibartarrak kanpora joaten dira, garraio eta ostatu gastuak gehituz. Konturatuko zineten moduan ehizan gastu asko daude eta dirua Iortzeke bide bakarra ehizatutakoa saltzea da. Oilagor bakoitza, adibidez, 2.000 pta.n saltzen da. Hala ere, ez dago errentagarritasuna ateratzeko ehiza nahikorik. Beraz, hauek guztiak kontuan hartuz, ehizan hasteko 150.000 pta. inguru behar dira.



*Trakurrek oilagorrea non dagoen izkutatuta dazentaten dutenann ez dira danden lekutiK mugitzen, in ehiztariak oriak ihes egun baino lehenago heldu behar du.*

W

EAJ, EH eta EA ALDERDI EK, ELGOIBARKO UDALA GOBERNATZEKO AKORDIOA SINATU BUTE ESTRATHEKOZ.

# Zeut iruditzu zaizu alderdi abertzaleen akordioa?



**NIATILDE DAQUINTA**  
64 urte, etxekoandrea.

Ez dakit ezer horri buruz. Igual hobe da horrela egitea, saiatzea beti da ona. Baina ez dakit irauongo ote duten 4 urtetan. Nik ez dakit konfiantza asko politikoengan.



**AURELIANO GONZALEZ**  
59 urte, fresadorea.

Elkartu eta gero, indar gehiago dago. Hitz eginez elkar ulertzen dugu denok eta hauek ere elkarrekin konpondu beharko dira.



**IMAR GARCIA**  
58 urte, exekoandrea.

Oso jende jatona ikusten dot hirukotian eta ondo jungo dala pentsatzen dot. Gauzak aldatzen ai dia, beste diskurtso batzuk entzuten dia eta aguantauko dahe elkarrekin.



**JUAN CANALES**  
69 urte, jubilatua.

Elkartu badira, elkarren artean konpondu behar dira. Hoberako imngo da. Alderdi bakarra hadago agintean nahi duena egiten du eta hiru badaude, ados jarri behar dira.



**ROSA GARCIA**  
46 urte, etxekoandrea.

Hoberako bada, ondo dago elkartzea. Ados jartzen badira, denen artean ongi egingo dute. Baina, hiru alderdi direnez, zailagoa da eta arazoak eduki ditzakete.



**ANDONI ALRERDI**  
66 urte, jubilatua.

Komenigarrixa cia. Itxen dabena, herrixan mejoarako izan deila. Hiru partido ezberdin egonda, beti egongo dia gorabeherak baina usten dot aguantauko dabeia.



*(.11a14( ftwas*

*1997ko azaroaren 8an hil zen 30 urte zituela.*

*Udazkeneko gau ilun hartan  
orbel erorien gisa  
joan zinen orain dela bi urte  
ez zenigun Sera abisa  
haize bortitzen joan etorria  
ez da izaten beti grisa  
ahots batez gaur zure lagunok  
behar dugula hau haiza  
bihotz barnean gordetzen dugu  
zure irripar ta keriza*



# ISPILUARI DEGIRA



*Iñaki Oñederra*

DGRAff Diseinu Grafilttoa

-Diseinatzaile grafikoa izateko zer da garrantzitsuagoa: irudimena, teknika ala konstantzia? - Hiruten nahasketa bat. Irudimena bilur banarrezkaa Teknika berriz, egunetik egunera ikasten dozu, koastamazila kontua baitxa.

-Publizitatearen eta irudialren etorkizuna diseinu grafikorik gabe uler al daiteke? Diseinu ,grafikoa tresna edo teknika bat gehao da, bainoa hemen dao etorldzuna.

-Irudi batek 1000 hitzek baino gehiago balio al du? Bai, baina nahiko subjelibua da, iirudi berdinak bi pertsonentzat esanahi ezberdina euki letle-eva,

-Aukera izanez gero, zein albiste gustatuko litzaizuke egunkari bateko azalean nnaketatzea?

Gizartean dauden hainbat orazo konpondu diazela.

-Eta zein esaldi aukeratuko zenuke kamiseta batean diseinatzeko? - Betidanik gustaga izan jata "crupe cliern" edo "momentua bizr esaldixa.

-Aldizkari bat irakurtzean, diseinuan ala edukian fija-tzen zara lehenengo? - Barsten ditzuten foileto, alcrakari, kar-tel etab.etan, lehenengo diseinuan lijatzert naiz\_

-Zer da zure lanetik gehien gustatzen zaizuna?

Diseinu libria, hau da, nere kabuz sortzen ditzuten diseinuak, baina gehixenetan enkarguz itxen dou lan. linotipuak itxia ere asko gustatzen jata\_

-Zuen espezialitatea?

- Enpresentzako inidi korporatibuak sortzia,

- Gustuko diseinatzaile grafiko bat? -Diseinatzaileetan fi-jau biharrian margolarixdatik hartzen ditzugia ideak, Warhol esaterako, asko gustatzen jata.

- `Arratoiak' beldurtzen al zaitu? Ez, Int= ez.

-Zure bizitzako zein une `artxibatu'ko zenuke?

- Eguneroko momentu simple hoiek\_ Garmutzi gjnyfi dakela entra-ten dau, baina disfrutatzen jakin ezketo, ramenourriik coarrak

-Gustuko letra mota bat?

- `Ariane' letra tipua da gehien erabihzen doguna.

-Ordenagailuz egindako efektu bereziak dituzten peli-kulak ala zuri beltzekoak?

- Efektu bereziak dituztenak nahiago ditut

-Bideo jolasak gustuko al dituzu? - Ez batereez,baita r40-1 a eginak dauden fijatzen naiz.

-Ezkonduko zinateke interneten bidez ezagutu duzun pertsona batekin?

- Bai, zergatik ez. Ezkondu agian ez, baina ezagutu bai,

-Zein arrazoiengatik izan nahi zenuke famatua?

- Nire lanarekin zerikusixa dakan zeozergatik, hau da, diseinu on bat in dotelako-edo.

**ELENA**

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Franftisko, 49-1 Tel: 943 74 11 89

**Mandiola Egurrak S.L.**

Domingo Arrizabalaga

**ilk**

SALEROSKETA

BASOEN MOZKETA



Juan Mugerza, 3 n 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83

## • Iian

**Barrenetxeak  
Urretxuko Kandid  
Letiaketa klabazi du**

Iban Barrenetxea elgoibartarrak Zurnarraga-Urretxuko Korniki Lehiaketan lehen saria irabazi du, "Cria cuervos" komikilari esker. Joan zen ostirategian izan zen sari banaketa eta bertan eskuratu zuen Elgoibarko marrazkitari gazteak 40.000 pezetako saria. Aurretik, Ibanek beste sari batzuk irabazi ditu komiki lehiaketa ezberdinetan eta Urretxuko honetan bertan, garaile ateratu zen 1998. urtean, Bukowskiren "Pulp" libururaren parodia bat eginez.

• **Autoak  
birnidatzeko  
ikastaroa egki dute  
Mekanthako thasleek**

Mekanikako ikasleek autoen birziklapenerako ikastaro bat egin dute urtariletik iraila bitartean. Ikastaro honetan, 100 ibilgailu birziklatu dira *Lagun* enpresa zaharretan, Eusko Jaurlaritzaren Ingurugiro Sailak subentzionatzen. Esperientzia positiboa izan da 15 urte inguruko Mekanikako ikasleentzat, izan ere etorkizunean horretan atituko den enpresa baten sOrburua izan baitaiteke. Oraingoan, proiektua zehazteko dago, gaur egungo finantziaZioak ez baitu balio. Birziklatu4iren autoak zarrak ziren, 15 urte ingurukoak, eta birziklatzeko osagai gutxi zeukaten. Bestetik, garraioaren kO'stua zegoen. Gastu hauek kontutan harturik, irabazia 6.000 pezetatkoa zen auto bakoitzeko. Nahikoa kopuru txikia garraio, langile eta abarren kostuei aurre egiteko. Edonola ere, datu guztiak Eusko Jaurlaritzari emango zaizkio, jarduera hopetan aritzen den enpresaren batekin bat egiteko saiatzeko,

**abertzaijeall dagoeneko  
hasi Arn 12111B2ff**

Sinatu duten akordioa herrigintzan oatera jarduteko izango da

**H**iru alderdi abertzaleak elkarlanean hasi dira dagoeneko. Pasa den astean sinatu zuten Gobernu akordioa, herrigintzan elkarrekin jarduteko abiapuntua izango da.

Eusko Alderdi Jeltzalea, Euskal Herritarrok eta Eusko Alkartasuna alderdiek Udala gobernurako ituna sinatu zuten joan zen ostegunean, hilaren 28an, Udaletxeko batzar aretoan. Akordio honi esker, hurrengo legegintzaldian Udala hiru alderdi abertzaleek gobernatuko dute.

Sinaketaren unean, Eusko Alderdi Jeltzaleko, Euskal Herritarroko eta Eusko Alkartasuna-ko kideak egon zi-



*Argazkian EAJ, EH eta EA alderdietako kideak ageri dira sinaketaren unean.*

ren. Alkatea, Guillermo Garate (EAJ), Asier Zengotita (EH) eta Inazio Mugerza (EA), beste alderdikide batzurrekin batera izan ziren ekitaldian. Akordio hau hiru alderdien harreman onaren ondorioa da.

**Ballegoitxin dagoen zuloa tapatzen ari dira**

Urruzunoko eta Madalako obretako lur hondakinak bertan botatzen dituzte

**B**allegoitxi izeneko tokian (Deba ibaiaren ertzean, *Etce-Tar* eta *Kondia* enpresen aurrean) egiten ari diren obrak aurrera doaz. Hain zuzen, estaltze lana egiten ari dira bertan. Pasa den udatik, lurrez betetako kamioiak zulo honetara ari dira lurra botatzen. Lur hauek herrian egiten ari diren eraikuntza lanetan sortutakoak dira (Urruzurton, Madalan...).

Horrela, proiektu honek bi aldeei egiten die mesede. Alde batetik, aurrezpena *riikarrelako*, kamioiak ez direlako ondoko herrietara joan behar lurrrak botatzera. Eta bestetik, Ballegoitxiko terrenoetako jabearentzat ere onerako da, bere zonaldea laua jartzea lortzen duelako.



*Ballegoitxiko terrenoetan bi plataforma eraiki nahi dituzte eta laster bukatuko dute lehenengoa.*

Lan hauekin bi plataforma eraiki nahi dituzte eta lehenengoaren mailara aurki iritsiko dira. Lehenengo plataformaren neurri-irra ailegatzean, ingurugiroari kaltea gutxitzeko egokitzapen lanak egingo dira.



## Euskara idataa hobetzeko ikastaroa hasi dute 10 lagunek

Euskara idatzia hobetzeko ikastaroa hasi zuten 10 lagun inguruk asteazkenean, hilaren 3an, Udal Euskaltegian. *Elgoibarko Izarraren Gurean Bai* proiektuak antolatutako ikastaro hau hen'iko enpresa, erakunde eta elkarteetako idazkariak eta bulegariak zuzenduta dago. Azaroan zehar emango ditu Udal euskaltegiko irakasle batek eskolak. Besteak beste, testugintza, itzulpenetan sortutako arazoak eta Euskaltzaindiko arauak landuko dituzte, 16 ordu iraungo dituen ikastaro honetan.



## Pilar Ikastetxeko ikasleak Urkulun izan dira

Pilar Ikastetxeko DBH 1. mailako ikasgela osoa, pasa den astean Urkulu urtegiara joan zen bi egun pasatzera. Baserri handi batean egon ziren ikasleak berthen irakasleekin. Egunez, lanak, jolasak eta ibilaldiak egin zituzten urtegiaren inguruan. Gaez, berriz, diskoteka saioa eduki zuten. Adierazi digutenez, oso ondo ibili ziren eta hurrengo urtean berriro joateko desiatzen daude. Argazkian, ikasleak urtegiaren inguruetan ageri dira.



## • AEK eguneko zozketaren zenbaki saritua 20317 da

Urriaren 24an Saran (Lapurdi) ospatu zen AEK egunean 2 lagunentzako bidaia zozketatu zen Dominikar Errepublikara. Zenbaki saritua 20.717a izan da. Zenbaki hau hamabost eguneko epean agertzen ez hada, 50.568 izango da saria jasoko duena. Elgoibarko AEK euskaltegiak eskerrak eman nahi dizkie errifak saltzen lagundu dutenei eta baita erosi dituzten guztiei ere.

## • Behobia-Donostia lasterketara autobusean joateko izena emateko epea zabalik dago

Elgoibarko Udal Klrol Patronatuak autobusa antolatu du azaroaren 14an izango den Behobia-Donostia lasterketarako. Dagoeneko izena emateko epea zabalik dago eta nahi duenak Olaizaga kiroldegian eman dezake. Lasterketarajon nahi duten guztiek 1.000 pta, ordaindu beharko dute.



## Errosario Jaietako zoiketari saritutakoak

Errosario kaleko jaietan egin zuten zozketako txartel sarituak azaldu dira. Imbazleak Maria Jesus Barrutia eta Juan Manuel Sanchez elgoibartarrak izan dira. Maria Jesusek, 210 zenbakiari esker, ardo botila kaxa bat eta urdaiazpiko bat eraman zituen etxera. Juan Manuelek berriz, 588 zenbaki sarituaren jabea izateagatik telebista bat jaso zuen. Saria joan zen asteartean, hilaren 2an jaso zuten.

## Bklefgbi enpresakoek alzerriko bazkideen bisita izan dute

*Bide-Egin* enpresak lanbide heziketa eskaintzen die gazteei. Sukaldaritza, zurgintza edo gozogintza lanbideak irakasten ditu. Lanbide Heziketan neska kopurua mutilena baino askoz txikiagoa zela-eta, Eibarko Udalak eta Emakundek, besteak beste, *Leonardo Da Viteli* proiektua aurkeztu zuten Europan. *Bide-Egin* enpresak hartu zuen proiektua aurrera ateratzeko ardura. Emakundea Lanbide Heziketan integartzeko prozesuan Finlandiako, Portugalako eta Ingalaterrako bazkideen laguntza jaso dute. Pasa den uniaren 28an jardunaldi transnazionalak egin zituzten. Argazkian, Finlandiako eta Portugalako bazkideekin batera *Bide-Egineko* zenbait kide azaltzen dint.

# Microsoft Windows 98 gida liburua

# doan

ERANTZUNA BEREHALA

Irakurterraza

Argibideak urratsez urrats

- Ikono eta irudi argigarriak

Sarrerak ordena alfabetikoan

160 orrialde koloretan

Couche paperean inprimatua

Tamaina: D1N A4

Nola jaso dezaket

WINDOWS 98 gida liburua?

1- Azaroaren 14ko egunkariarekin batera plantila bat jasoko duzu. Hor itsatsi behar dituzu hurrengo egunetan egunkariak argitatuak dituen kupoiak.

2- Azaroaren 27an banatuko dugu azken kupoa, eta azaroaren 28tik aurrera jaso ahal izango duzu zure kioskoan Windows 98 gida liburua. Hasieran jaso duzun plantila, eguneroko kupoiak itsatsita dituela, zure kioskoari eman beharko diozu.

3- Kupoiaren baten faltan gelditzen bazara, azaroaren 28an ordezkotako bat banatuko dugu; falta zaizun edozein kupoi ordezkotako deza horrek.

**OHARRA:** liburua eskuratu ahal izateko, banaketa arazorik ez edukitzearen, 200 pezeta ordaindu beharko da.

HARPIDEDUN guztiek etxean jasoko dute liburua doan, kupoirik bildu gabe.

## Egunkaria

uNalm...1~ agoolu+SBN.Anr Nou. »Na

Txileko Gobernu-gero eta akalegin diplomatiko handiagoa egiten iri da - 28

Munduko 1.1~ren arrakastaren ordoren •

### Windows 98, informatikaren mundua EGUNKARIAREN eskutik

Azaroaren 14tik aurrera, eguneroko bepaiok bilduta 207211 tartzeko aukera



Araozak?


Zaintzak?

erantzuna berehala!

**1201**  
• 1.411114noandn  
\$m Tenek •

**1101**  
• gonaO.  
ndhaomaot  
• Cronakloingzan  
nelnann. •

• 1951 in azkararED  
145bo,  
oftranikon •



Babesleak:



vonwouskadi net - -



Egileak:



**Zure independentzia!**

# Negua epeletan pasatzeko gehi



## Negurako babesa

Orain artean udazkena nahiko epela izaten ari bada ere, eta hotz handirik egin ez duen arren, urtea amaiera aldera heitzearekin batera, eguraldia hoztu egingo da nabarmen. Neguaren etorrerarekin, hotzari aurre egin beharra izango da. Horretarako, etxean igarotzen diren ordu ugarietan berotasuna egotea funtsezkoa da. Izan ere, berotasunak etxeko bizilagunen eta familiaren ongi izatea dakar. Azken finean, berotasunak bizitza kalitatea dakar eta guri dagokigu hotzik ez pasatzeko guretzat egokiena den herogailu sistema aukeratzea. Berogailuei buruzko gehigarri honek, etxeko erosotasuna nola lor daitekeen erakutsi nahi du.



**SORALUZE**  
**AROSZTEGIA**



- "Rotura"dun aluminioa
- Po[iuretanoa
- PVCa, Hermet 10
- Bainuko manparak
- Ateak
- Toldoak
- Pertsianak
- Beirak
- Egurra eta aluminioa

**FABRIKA:**

Olasope, 66- ELGO1BAR  
Tel./Faxa: 943 74 21 03

**ERAKUSKETA:**

Santa Ana, 8 Tel.: 943 74 36 34 EIGGIBAIR  
Goika kale, 16 Tel.: 943 81 02 74 AZPEITIA

## Nola aukeratu enpresa egokia

Gasazko berogailuak jartzeko, funtsezkoa da enpresa egokiaren aukeraketa, bai arlo ekonomikoan eta baita arlo profesionalean ere. Eskatzen ditugun baldintzak betetzen dituzten enpresak aukeratzeko, gasa jartzeko baimena ematen dion zertifikatua eskatu behar diogu enpresari. Dokumentu honek lege mailan, ahalmena ematen dio enpresari obra egiteko.

Ez da ahaztu behar haiaber, obra egingo duen enpresa nongoa den jakitea komeni dela. Era honetan, azken orduko ezustekorik ez da gertatuko (esate baterako, enpresak lana erdizka egina uztea, edo, behin lana bukatuta, enpresak kasurik ez egitea bezeroaren erreklamazioei). Gainera, enpresak, lana esandako epeetan egiteko nahikoa langile daukala segurtatu behar du. Horrekin batera, legeak agintzen dituen seguruak eduki behar ditu.

Enpresak aurkeztu behar duen lehenengo dokumentua aurrekontua da. Horretarako, bezeroak zehazki zer ezarri nahi duen erabaki behar du. Aurrekontuan, zehatz mehatz agertu beharko da zein den egingo den lana, epeak, eta prezio osoa, bai erabiliko diren materialeena eta baita eskulanarena ere. Halaber, kostua ordaintzeko modua ere agertu behar da. Azkenik, garrantia epea zenbatekoa den eta bi aldeek egoki erizten diotena azaldu beharko du aurrekontuak..

## Cid5 bidczko

**G**asa energi iturri hezala erabiltzen duten berogailu sistemek erosotasun maila altuak eskaintzen dituzte. Dauden sistema ezherdinekin, berogailu moeta hau edozein egoeratan erabili daiteke, hai etxean eta haita hulego, eritetxe eta abarretan ere. Gas bidezko berogailuek dituzten abantailak, hotzari aurre egiteko sistema egokienetako hatizatea dakarte. Gasa energi iturri bezala erabiltzeak dakartzan abantaila nagusienak ondokoak dira:

- ✓ Ekonomikoa: gasaren etxeko erabilpenarekin elektrizitatearenaren erdia gastatzen da.
- ✓ Etxeko elektragailuekin batera erabili daiteke. Etxean gasa ezartzeak, nahikoa potentzia ematen du aparailu guztiak aldi berean martxan jartzeko.
- ✓ Erantzun azkarra. Berehalako beroa. Gasak bapateko erantzuna eskaintzen du, ez da inertzia termikorik gertatzen, ez dago itxaron beharrik.
- ✓ Ingurugiroarekiko garbia da. Ez du ez kerik ezta hondakin solidorik ere sortzen. Errekuntzan erabiltzen diren produktuak, uraren lurrina eta anhidrikoa dira, atmosferako osagai naturalak, ez dutenak ez zikitzen, ezta kontaminatzen ere.



### ZALDUA Iturgintza

GAS ETA BEROGAILU  
INSTALAKUNTZAK

Urasandi, 26 Tel:943 74 05 30



### ONGI Iturgintza

GAS eta BEROGAILU  
INSTALAKUNTZAK

Urasandi, 5 beheka · Tel.943 74 10 82



## Glas Control

### Isolamenduak

**LEIHOAK ISOLATZEN DITUGU:**

**4aiyea, lat5ot, 4autiut  
eta yanateft leuteta.**

Olaso 27, 47. pabilioia Tel: 943 74 43 54  
(Ikus kontrazala, 28, orrialdea)

# Derogdiluc. 1DdRlthim

## Kaldere moetak

Gaur egunean gas erako berogailu sistemetan erabiltzen diren erregai moetak bi dira: gas naturala eta propanoa, hiri gasa (gas ciudad) desagertu egin baita, gas naturalak ordezkatuta.

Era honetako berogailuetan, aparailu nagusia kaldera da. Aukeratutako kalderaren arabera, erabilpen abantaila gehiago eta segurtasun handiagoa lortu ahal izango da. Gaur egun, merkatuan daudenak hiru moetak dira: kaldera estankoa (caldera estanca), tiro naturalekoa eta tiro behartu-koa.

Kaldera estankotan, errekuntzarako airea kanpotik hartzen da eta beriz kanpora botatzen da, areto barneko airea erabili gabe. Segurtasun maila altua dauka honek, beste kalderek eskaintzen ez dutena, ezartzen den toki bereko airea behar ez duelako eta errekuntza, tokian bertan gertatzen ez delako.

Tiro naturaleko etxeko kaldera, egun etxeetan gehien jartzen dena da. Errekuntzarako airea, ezartzen den toki bertatik hartzen du kaldera honek eta errekuntzan sortutako gasak hodi batetik kanporatzen ditu. Ezaugarri hauek direla-eta, eguraldiak eragina izaten



du hauen funtzionamentuan.

Azkenik, tiro behartuko kalderak daude, haizagailu (ventilador) batek lagunduak direnak. Haizagailuaren lanaren eraginez, iheserako hodian, presioa, aretoan baino handiagoa da. Hortaz, zulo bat sortuko balitz, errekuntzako gasek aretora ihes egitea ekariko luke. Horregatik, era honetako kaldera ezartzeko baldintzak gogorragoak dira, gasak kanporatzeko hodiari dagokionean.

## Bero emaileaR

Berogailuak. ematen duen berotasuna, segun eta zenbat pertsonak gozaten duten, instalazioak modu desberdinetakoak dira: batuak, indibidualak eta zentralak. Gasezko

berogailuetan, bero emaile ezberdinak daude: ohikoenak radiadoreak dira, burdin funditu, txapazkoak eta aluminiozkoak izan daitezkeenak. Baina gaur egunean, sistema berriak erabil daitezke: esate baterako, lurzoru bero emaleak eta aire bero klimatizatzaileak. Azken hauen artean daude, industrialak (aeroterminoak, aire jaurtitzatzaileak...), egoitzetakoak edo bulegoetakoak, zarata gutxiago sortzen duten klimatizatzaile batzuei esker.

## ZIBILEIROZTECII. SL

Egurrezko leihoak

■ PVCa

. Barruko erreformak

Armairu enpotratuak

Ateak eta tarimak

Deba kalea, 16 • Tel. 943 74 03 96



**Avi ITURGAZZA**  
BEROGAIA

**j** turria tantaka duzula...  
-zr 608 77 29 32

Errelxincil z/g



**Juan Carlos**

Iturgintza, gasa eta berogailuak



## Isolamendua lortzeko pertsianak



**I**solamentu egoki bat lortzeko, beharrezkoa da gelako leihoak ondo itxita egotea eta horrez gain, kanpotik barnera hotza sartu ez dadin, gaur egun pertsianak erabiltzen dira. Pertsianen artean, ordea, moeta eta estilo ezberdinetakoak daude.

Orain artean asko erabili diren pertsiana finkoez gain, gero eta onarpen handiagoa duten pertsianak, pertsiana bilgarriak dira, erraz jartzen direnak etxe berrietan nahiz zaharberrietan. Aldakorrak dira eta aldi berean kalitate handikoak.

Kajoiaren forma eta laminen biltzeko diametro laburra dela-eta, edozein motatako sakongunetan erraz moldatzen dira, paretean asko

nabarmendu gabe, daukaten sakontasun laburreratik. Materiale isolatzaileari esker, ez dago beste isolamentu termikoren beharrik. Beharrezkoa denean, Styropor-eko plakak jar daitezke kajoiaren barnean.

Isolamentu ona lortzeko, kajoiaren elementuak PVCko planbca espumatuz egiten dira. Bestalde, pertsianak erraz mugitu daitezten, goma edo zepiloz osaturik dauden effallak (carriles) dituzte. Kajoiaren azala, plastikozkoa da, horrela obrari bete bete lotzen zaio.

Era honetako pertsianak gora eta behera maneijatzeko, hiru aukera daude: lokarria, biradera (manivela) edo azkenik, motorizatua ere izan daiteke.

# LODOSO LEIHOAK



**lete**

**Witdead 1104**

**PVCa**

**Aluminio termikoa**

**Poliuretanoa**

**Aluminioa egurra**



Ermuaranbide, 16 Tel/Faxa: 943 74 34 90



Peio Aizpurua Bide-Egin enpresako partaidea da. Pedro Muguruzako ikastetxe zaharretan egoitza duen enpresa honek ohiko heziketara moldatzen ez diren ikasleei lanbide heziketa irakasten die. Guztira, 50 ikasletik gora daude sukaldaritza, gozogintza eta zurgintza ikasten, eta hauetatik 13 besterik ez dira neskek. Lanbide Heziketako neskei irtenbide bat bilatu nahian, neskei zuzendutako materiale didaktikoa sortzeko proiektuan hartu dute parte. Hona hemen Peiok etnan dizkigun azalpenak.

# PEIO AIZPURUA

## "Emakumeak muntan inlegratzea koonardo Vlloci prolentiaren he!omiuE"

— Azaldu eiguzu laburki zer den *Bide-Egin*?

- Gizarte bermerako (garantia social) programak eskaintzen dituen enpresa bat da *Bide-Egin*. Programa hauek Lanbide Heziketa: noduan ezagunagoak dira. Sukaldaritza, gozogintza eta zurgintza tailerrak emateko prestaturik gaude momentu honetan. Eibarko Udala buru dutela Debarroko Udalek daramate programa hauen ardura, baina programak aurrera ateratzeko hezitzaile enpresak kontratatzen dituzte. Hori dela-eta, duela 5 urte, *Bide-Eginek* programa hauen ardura hartu zuen. Programa hauetaz gain, ikastaroak eta tailerrak ere antolatzen ditugu.

— Zein dira zuen ikasleen ezaugarriak?

- Guztira, 16 urtetik 19 urte bitarteko 50 ikasletik

gora ditugu, tartean 13 neska daude. Eskolara moldatu ez diren ikasleak dira nagusild. Ikasle gehienak atzerapen akademiko handiarekin eta erabat desmotibaturik etortzen dira guregana, derri gorrezko eskolak ez die irteerarik eskaintzen-eta. Beste batzuk, berriz, eskolan ez doaz ondo, baina argi daukate zer egin nahi duten. Horregatik guztiagatik, heziketa eskaintzeaz gain, gizartetik ez aldentzeko eta bertan integratzen laguntzea da tailer hauen helburua.

— Emakumeen kopurua askoz baxuagoa da. Zein izan daiteke arrazoia?

- Aurten inoiz baino neska gehiago ditugun arren, eskolara moldatu ez diren neskek mutilek baino arazo larriagoak di tuzte. Ikasten jarraitu nahi ez dutenek ez dakite zer egin

edo nora jo. Guregana etortzen diren neskei zer egiteko asmoa duten galdetzean, amari lagundu edo antzerako erantzunak jasotzen ditugu oraindik. Orokorrean gutxi dira zer egin garbi daukatenak.

— Emakumeen arazo hori konpontzeko *Leonardo da Vinci* izeneko proiektuan parte hartu duzue, ezta?

Bai, Eibarko Udalak antolatuta eta Emakundek bultzatuta konkurtsora atera zuten proiektu hau, eta *Bide-Eginek* eskuratu zuen gauzatzeko ardura. Lan arloan, errazago hartzen dituzte gizonak tradizioz eurentzako lanbideak izan direnetan. *Leonardo da Vinci* proiektuaren helburu nagusia, emtekumeak gizonentzako lanetan hezitzeko edo prestatzeko bideak zabalitzea izan da. Bide batez, gizon emakumeen berdintasuna bultzatuz. Emakumeekin egin beharreko heziketa lan hori berria denez, lanbide eskoletarako materiale didaktikoak sortzea, praktikan jartzea eta balorazioa egitea izan da gure lana. — Nolakoa da irakasle eta ikaslearen arteko harremana?

Gure arteko harremana oso estua da, emaitza onak lortzeko modu bakarra baita. Harreman horretan pisu gehien daukana ikaslearen iritzia da. Eskola barruko arauak guztion artean erabakitzen ditugu kurtso hasieran eta ikasleek kontutan hartzen ditugula ikusten dute.

### EESTEK ESAIVA

"Bere lanarekin eta ikasleekin oso konprometituri dago. Egiten duen horretan sinesten du."

AGUSTIN TORROBA, lankidea.



## URRIAN

### • • • JAIOTAKOAK • • •

- Leire Gabilondo Gorriti (Urriak 7)
- Nerea Martinez Dominguez (Urriak 8)
- Jon Araujo Egiguren (Urriak 17)
- Yeray Alvarez Leal (Urriak 19)
- Imanol Albizu Benito (Urriak 27)

### • • EZKONDUTAKOAK • •

- Angel Bueno eta Miren Agurtzane Onederra (Urriak 9)
- Franeiseo Javier Martinez eta Maria Angeles Villena (Urriak 9)
- Benjamin Tinoco eta Ana Maria Guillen (Urriak 16)
- Gorka Azpilikueta eta Maria Garcia (Urriak 16)

### • • • HILDAKOAK • • •


- Angeles Idigoras Arcelai, 91 urte (Urriak 16)
- Angel Astigarraga Garmendia, 75 urte (Urriak 19)

## Antonia Juaristi Agirregomezkorta (1900-1994)



- 1900eko urtarrilaren 17an, San Anton egunean, jaio zen San Lorentzo bailarako *Ermuhe* baserrian. 7 anai-arreba izan ziren, bera hirugarrena. Gaztaro-ko ikasketak San Lorentzoko eskolan egin zituen.
- Sasoi hartako ohiturak jarraituz, gazte denbora lagun artean jolasten eta familiari baserriko lanetan laguntzen pasa zuen. Gero, kalera jeitsi zen, eta hainbat zerbitzu lan egin zituen. `Casa Fonda Barrutia`ko langilea izan zen. Kurutzetara, San Lorentzora eta San Isidrorra dantza egitera joatea gustatzen zitzaion, nahiz eta San Isidron ez zuten `agarrauan` dantza egiten lagatzen.
- Urte batzuk beranduago, bailarako *Jauregi* baserriko Santi Alonsorekin ezkondu zen, eta Antoni senarraren baserrira joan zen bizitzera. Sei seme-alaba izan zituzten. Baserriko martxa ongi zijoala eta oraindik seme-alabak gazteak zirela Antonia alargun geratu zen, Santi bere senarra istripuz hil baitzen lantegian. Horreiko egoera latz baten aurrean gogor lan egin zuen, sinismen handikoa, ausarta eta langilea baitzen. `Mendikute` lantegian hasi zen lanean eta bere ahizpa batek lagundu zion baserriko lanekin.
- Ahalegin askoren ondoren lortu zuen familia aurrera ateratzea. Semeek pilotan jokatzeko oso gogoko zuten, eta Joxe bere semeak, hainbat aldiz irabazi zuen Deba bailarako Txapelketa.
- Asko sufritu ostean, borondate eta meritu handiko emakumea zen Antoni eta bailaran estirnu handinin zuten. Azkenik, egun pozgarriagoak bizitzea ere tokatu zitzaion, eta hamaika aldiz egin zituen osterak Arratera, Arantzazura eta beste hainbat lekutara. Kaleko goiz meza entzutea ere gogoko zuen.
- Etxeko sukaldean musean jokatzeko edo atarian auzotarrekin solasaldiak izatea asko gustatzen zitzaion. Baita euskal kantak eta ohiturak ere.
- Oraindik sasoe ona zuela hil zen 1964ko abuztuaren 31n, 64 urterekin.

Juanito Gorostira



## ET EBERRIA

### Hfileta zerbilizu

OSOA eta 24 ORDUKOA

**KUTXAK TRASLADOAK - KOROAK**

**NORBANAKOEI ETA KONPAINIEI  
zuzenduriko zerbitzuak.**

**Donostia eta probintziako eritetxe zentroetan ere bai.**

Santa klara, 16 20 870 ELGOIBAR

Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56 (Mobila) 608 77 07 01



# A

ste honetako erretratu zaharra fut-  
bolzale batek laga digu. BARRENe-  
ko kirol orrialdetan azaltzen dizue-  
gun moduan, J.M. Arakistain izango  
da Hauncliko entrenatzaile benia.

Hori dela-eta, duela 27 urteko taldea nork osatzen zuten ikusteak gaurkotasuna izan dezakeela iruditu zaigu. Argazkia 1973. urtean atera zuten, garai hartako C.D Elgoibarko bazkide zaharrenari, Lorentzo Gomstizari, alegia, egin zioten omenaldian. MutTikuko taldearen aurka jokatu zuten eta banako berdinketarekin amaitu zen partidua.

Aurpegi ezagun asko daude jokalarien artean, honako hauek dira euren izenak goitik eta ezkerretik hasita: **Juan Martin, Niko Etxabe, Luis Ma Riaño, Jose 154' Diego, Jose Ma Lasa eta Jose Arrizabalaga.**

Makurtuta ezkerretik hasita: **Laurentzi Gorostiza (urnea), Cristobal Monje, Juan Luis Arre-  
gi, Txomin Arzamendi, Kike Ormaetxea eta Angel Ma Etxabe.**

Bestalde, Leruneko futbol zelaia 1973. urtean berfiztu zuteneko argazkia ikus dezake,gu. Jose Mari Oruesaga.sti zen C. D. Elgoibar takieko presidentea urte hartan. Argazkia laga digun herritanak azaldu digunez, bat pezetako kostua izan zuten berritze lanek. Diru asko zela iruditu zitz.aigun orduan, baina gauzak asko aldau diaz futbolan munduan ordutik ona".

---

**Okerrak zuzenduz:** BARREneko 293. aleko erretratu zaharrean Anita Martin hilda zegoela jani genuen. Zorionez gure akats bat izan zen eta Anita bizirik dago. Barka hankasartzea.

# 17➔ "Clemente balidua izan laike Realantzat



## Agustin Alonso

Ta Sua' pe'dako presidentea

*Urriaren 22an 'Jo Ta Sua' Elgoibarko Realzale taldeak batzarra egin zuen. Aurten peña osatu denetik burutu dituzten ekintzen balorazioa egin zuten. Guk, horien berrijasotzeko Agustin Alonso, Ta Sua'ko presidentearekin hitz egin dugu. Bide batez, Clementek Reala entrenatuko duen albistea bero bero egonik, horri buruzko iritzia ere galdetu diogu.*

**-Zer aztertu zenuten hilaren 22ko bileran?** - Diruan balantziak in zian. Oin kuotak laga in ditzugu eta ki-nielia atera dou. Horrekin batera, tute partidak ere antolau ditzugu. Gabon Zaharrian txosnia ipini nahi gendun baina datorren urterako laga dou. Kamisetak eta pin-ak atera ditzugu eta hurrengo derbixetara ere juteko egunez jarriko ditzugu autobusak. Ai gera gauzak itxen eta aurrerantzian ere ingo dia gehixo. Egun baten sagardotegi batera juteko asmua dakau partiduan aurretik, giro onian juteko. Eta abenduko puention, Realak Bargan kontra jokutzen dabanez, Bartzelonara biajia preparau nahixan gabiz.

**-Ekipoaren martxak eragina dauka taldean, ezta?** - Jendia piskat erreta dao. Normala da, ekipua ez dabil ondo eta igarri itxen da. Haserriak da-oz, gainera, ikusitxa ze panorama dauan. Bileran jende gutxi egon ginan, 19 lagun eta 75 edo gera. Ekipua ondo ibiliko balitz, jendia etorriko zan. Ekipua gaizki dabilenian, jendia moralmente piskat hundi du itxen da. Ondo dauanian, aldiz, gehixo apoiatzen dau. Baina halaxe gertatzen da.

**-Konforme zaude Clementeren fitxaketarekin?** Nik uste det Clemente balidua izan leikela Realantzat.

Danok dakigu zein dan Clemente eta berak gauza onak in leikez Realian. Kanterako jendia hartzen dau eta Realak beti zaindu dau kanterria. Clementek beste aliziente bat emango dio jendiari. Oin arte taldea piskat diskretua izan da eta oin Clementekin, prentsa eta telebistan portadan egongo gera. Izakeraz polemikoa da eta ez da isilik egoten. Baitxa ere, oin artian jendian presiva ez da egon, oin egongo da eta jugadoriak ere tentsio gehixokin egongo dia.

**-Hori zure iritzia da, ez Jo Ta Suarena.** - Nik nere opiniva eman ditzut, ez Jo Ta Sua taldean. Jo Ta Sua talde irekixa da, bakoitzak bere opinivak dakaz eta errespetau in bihar diez. Lehenguan, Kurutz Castrillejo ETBn agertu zan eta berak ere bere opiniu pertsonala eman zaban, ez Jo Ta Suana. Harek ez zaban Jo Ta Sua taldean izenian hitz egin, nahiz eta Jo Ta Suan kamisetiakin erten.

**-Realzale batzuek ez dute ondo hartu Clemente fitxatzea.** - Peñako jendiakin in dot berba eta uste dot jendiak nahiko ondo hartu dabala. Beti egongo da batenbat haserre, 27.000 sozision artian, momentuko berotasunagatik, baina resultauak aldatzen badiaz, bueltauko dia.

## Zuriñe Polok zilarrezko dornina irabazi zuen Sauvagnon-eko Nazioarteko Judo Torneoan



Ibai Kirol Elkarteko Zuriñe Polo judoka elgoibartarra, txapelkunorde geratu da Sauvagnon-eko (Frantzia) nazioarteko Judo Txapelketan. Zuriñek, 44kg-tik beherako infantil kategorian parte hartu zuen. Sauvagnon-ekoa lorpen garrantzitsua izan da judoka gazte honentzat. Izan ere, 250 judokak parte hartu zuten torneoan. Guztira, Frantziako eta Espainiako 42 elkartetako judokak aritu ziren. Kontuan izan behar da Zuriñe iaz Madriten jokatu zen Espainiako Txapelketarako sailkatu zela, serio lan eginda, aurtengo denboraldian ere izango du txartela eskuratuko aukerarik. Eta bukatzeko, Klubeko bere kideen berri eman nahi dizuegu: Mireia Gareiak eta Maria Idiakezek konbate gogorak izan zituzten frantsesen aurka, baina azkenean ezin izan ziren podiumerako sailkatu.

## ESKOLARTEKO KIR@LAK 1

### ARETO FUTBOLA (Ninixelan)

■ Benjamin mutilak •  
11:00 Pilar B- Herri Eskola B  
12:00 Ikastola A- Ikastola B  
12:30 Pilar A- Herri Eskola A

■ Benjamin neskek ■  
10:00 Ikastola C- Pilar A  
10:30 Ikastola B Ikastola D  
11:30 Ikastola A- Mendaro A

### SASKIBALOA Okastolan)

■ Alebin mutilak ■  
10:30 Mendaro A- Pilar A  
11:15 Ikastola C Herri Eskola B  
12:00 Ikastola B Ikastola A  
12:45 Herri Eskola A- Pilar B

### ■ Alebin neskek 11

9:00 Pilar A- Ikastola B  
9:45 Ikastola A- Ikastola C

### ESKUBALOA Ofiroldegian

■ Infantil mutilak ■  
9:00 Pilar A - Ikastola A  
9:45 Fleje - Arno

■ Infantil neskek ■  
10:30 Hamaikak Neskek - Ikastola C  
11:15 Ikastola B- Pilar A  
12:00 Kilimon - Ikastola A

## Pako Iriondok Eusko Jaurlaritzak Euskall Wientlizale Faderallandearii anillanda.lu saria faso

uskal Mendizale / 'Federakundeak Eusko Jaurlaritzak ematen dituen kirol sarietako bat jaso zuen pasa den urriaren 28an, Ajouria-Eneako jauregian. Pako Iriondo elgoibartanak jaso zuen saria Juan Jose Ibarretxe lehendakariaren eskutik, Pako baita Euskal Mendizale Federakundeako presidentea duela 14 urtetik.



"Ibarretxe lehendakariak horrelako sarixa ematiak asko esan nahi dau guria moduko kolektibo batentzat".

Eusko Jaurlaritzak mendizaletasuna antolatzen egin duen lan itzelagatik eta eman dion bultzadagatik saritu du Pako Iriondok zuzentzen duen federakundea. Juanito Oiarzabal mendigoizaleak eta Josune Bereziartu eskalatazaileak ere sari bana jaso zuten ekitaldi berean. Pakok sari hau en'ekonozimentu handia izan dela adierazi digu, "Ibarretxe lehendakariak berak horrelako sari bat ematiak asko esan nahi dau guria moduko kolektibo batentzat, eta lanian jarraitzeko ilusiva eta inda-

rra ematen digu. Federakundia oin dala urte batzuk ez zan ixa ezautu ere itxen Euskal Herriko mugetatik kanpo, baina gaur egunian kreditu handixa daka bai Estatu mailan eta baitxa atzerrixan ere. Gaur egun, gure federaziotik laguntza asko ematen diegu beste federazio askori. Horrek ere izan dau zeresanik sarixa esku-ratzeko orduan. Bestalde, Elgoibarko herrixantzat ere gauza handixa da federazio-

ko presidentia bertako semia izatia".

75 urte bete ditu aurten federakundeak, eta etorkizunari begira gogor lan egiten ari direla aipatu digu Iriondok, "Oinarririk ondo fijauta ditxtlim, baina gauzak ondo in arren, hobeto in leikez. Beti euki biada gauzak hobetu eta aldatzeko anbiziva". Anbizio horren adibiderik garbiena Elgetan prestatzen ari diren museoa da.

## ● Realeko jarranzaile elgolbartarrak jipoitu ditutte Sevillan

Pasa den igandean Realak Betisen aurka jokatu zuen Sevillan. Ligako partidu hau ikustera joan ziren Elgoibartik ReaIaren jarraitzaile batzuk. Hala eta guztiz ere, Andaluziako hiriburura bidaia ez zitzairen nahi bezala irten. Izan ere, partidua hasi aurretik, gazte batzuek hurbildu zitzaizkien eta jipoitu egin zituzten: Elgolbartar batek ozta ozta lortu zuen hanka egitea baina be-raiekin zegoen azpeitiar batek kolpeak jaso zituen. Ondoren, eraso hura jaso ostean, Realzale elgolbartarrek, partidua ikusteko gogorik ez zeukate-la-eta, sarrerak itzuli nahi izan zituzten. Baina, Betiseko presidenteak, Manuel Ruiz de Loperak ez zien dirua itzuli. Trukean Betiseko kamisetak oparitu nahi izan zizkien bai-na, jakina, elgolbartarrek ez zituzten ikusi ere egin nahi.

### EM TRIAK

#### Futboia

**Haundi 0- Sodupe 2 (3. maila)**  
Pedrusko 0- Kilimon 1 (1. erreg.)  
Elgoibar 0- Zarautz 2 (0. inf.)  
Elgoibar 12 - Amaika-3at 0 (Neskak)  
**Loiotako 1 - Elgoibar 3 (1. erreg.)**  
Reat Union 2- Elgoibar 0 (Jub. E.L.)  
Antzuolako 2 - Elgoibar 3 (Kad.)

#### Areto Futbola

Zur Ta Lur 3- Joslaldi Kiroiak 0 (1. maila)  
Zur Ta Lur 5- Txanela 2 (Aulana.)

#### Eskualdeko I.Txapelkela

irion11 - Los Lorongos 6  
Doktor Pollo 8 Real Mehy's 1  
P.S.K. 10 - The Ravel's 3  
Elur Malutak 3- Bar Las Torres 4  
Open Club 7- Basajaunak 2  
Anorthosis 4 Deportes Justo 4  
Barrenkale 5- Bayern de Munilxtbar 4  
Kashima Brewers 5- Horacio E.C. 4

#### Eskubaloia

Teoromeca Elg. 32 Almen 7 (Kad. mui.)  
IMH Elg. 25 - Hernani 15 (Sen. muf.)  
Kukullagal6 - Pagoaga Elg. 11 (Kad. nes.)  
Almen 20 - Gaur Elg. 15 (Kad. mut.)

Kukuliaga 15 Unceta Elg. 25 (Jub. nes.)  
Alofia-Mendi 18 -Pneumax Elg. 25 (Jub. mul.)  
Zuazo 14 - IMS Elg. 23 (Sen. nes.)

#### Pilota

**Oipuzkoalm Txapelkefa**  
Rezola/Loich 8 (Gazteleku)  
Ulazia/Anzmendi 22 (Lagunak)

Ubera/Apraiz 11 (Lagunak)  
Mata/Gracia 22 (Eskoriatza)  
Artano/Aldazabat 22 (Loiolatarrak)  
Leon/Perea 4 (Lagunak)  
Ansola/Alzibar 12 (Lagunak)  
Errasti/Errasti 22 (Aretxabaleta)

#### Idarraga Kafreak 3. saria

HAUNDIko jokalaria erregularrena 99/00  
JOKALANIA ..... PUNTUAK

1- Castro ..... 25  
2- Zulaika ..... 17  
3- Polo ..... 14  
4- Aranberri ..... 12  
5- Alberdt ..... 11  
6- Castino ..... 8  
7- Brauo ..... 7  
8- G. Leonardo ..... 5  
9- Ibarluzea ..... 5  
111- Txasio ..... 4

11- Garo ..... 4  
12- Manolo Ramas ..... 4  
13- Guarrotxena ..... 4  
14- Alcorta ..... 3  
15- Baquē ..... 3  
16- Fernandez ..... 2  
17- Loren ..... 2

### OE A

#### Futbola, Mintxetan

Larunbata, 6  
17:00 Elgoibar - Gazteak (1. erreg.)  
Igandea, 7  
10:45 Elgoibar - Aitzgorri (Aurre inl.)  
12:15 Elgoibar Arrasate (Kad.)  
16:30 Elgoibar Ordizia (0. inl.)

#### Eskubaloia, Kiroldedan

Larunbata, 6  
17:30 Pneumax Elgoibar Legazpi (Jub. PAut.)



Ofaso, 23 • 943 74 20 37

# Iusloarulu rtiOr HAUNDI ernnatzera''



## Jose Mari Arakistain

- **Adina:** 51 urte.
- **Lanbidea:** Fisioterapeuta.
- **Gustuko entrenatzaile bat?** Javier Clemente.
- **Zer iruditzen zaizu Realak Clemente fitxatzea?** Oso ondo.
- **Gustuko talde bat?** Barcelona eta Celta.
- **Beste kirol gustukorik?** Pilota.

*Jose Mari Arakistainek, Haundiko entrenatzaile berriak ez zuen estreinaldi ona eduki joan zen zapatuan, bere taldeak 0-2 galdu baitzuen Mintxetan Soduperen aurka. Hala ere, joan zen astean Arko txaren lekua hartu ondoren, bere kargu berrian lehen partidua galdu arren, ilusioz beteta datorrela Haundira aitortu digu.*

### **-Erronka berri bat hartu duzu Jose Mari.**

-Bai, hala da. Hau ez da pentsatu gabe hartutako erabaki bat. Erronkari baietz esatea erabaki det eta orain ahal degun guztia egin behar degu helburua lortzeko.

### **-Zerk bultzatu zaitu Elgoibarko entrenatzaile izatera?**

-Arrazoi nagusia Elgoibarkoa naizela da. Entrenatzaile batek taldea utzi du eta nik neure burua kapaz ikusten det taldea entrenatzeko. Ez ditut milagroak egiten baina, nere partetik, ahal dedan guztia egingo det.

### **-Arkotxak taldea uzteak pena piska bat emango zizun.**

-Arkotxa nere laguna da, aspalditik ezagutzen degu elkar. Ni entrenatzailea naiz, eta entrenatzaile bezala ezin naiz sekula poztu lagun batek, bere lana amaitu aurretik, taldea utzi behar izan duelako. Baina futbolak halakua da. Beti gustuko izan dudan talde baten ardura hartu det, ni hemengoa naizelako eta horregatik ilusio handia daukat.

### **-Astebete inguru daramazu lanean, jokalaria ezagutzen hasi al zara?**

-Denbora gutxi da oraindik kargua hartu detela. Hasi nintzanian, aurretik nerekin ibilitako Unai kenduta, beste jokalaria gainontzeko jendeak beste ezagutzen nituen. Ordura arte Haundik etxean jokaturako partidu guztiak ikusi nituen eta hori dela-eta ezagutzen nituen. Orduan horixe zan nire erreferentzia bakarra. Baina, orain, denborarekin, ari naiz hobeto ezagutzen.

### **-Soduperen aurka galdu egin zenuen. Ezin izan zenuen zuk zuzendutako lehenengo partidua irabazi.**

-Ez, etxean bigarren partidua galdu gendun jarraian. Haizea kontratan euki gendun baina ez dago aitzakiarik jarri beharrik; ezin izan gendun irabazi eta kitto. Orain, azkenengandik puntu batera gaude. Hata ere, gauzak ez dira muturrera eramane behar.

### **-Jokalarien portaera zuk esperozenuena izan al zen?**

-Beti gehiago espero dezut. Baina kontutan hartzen det gauzak ondo egin nahi izan zituztela eta ez zitzaizkiela nahi bezela irten. Apurka apurka hobera egingo degu. Jokalariek irabazteko gogoa zeukaten. Oraindik lan dexente egin behar degu baina ez det itxaropena galtzen, talde honek denboraldi amaieran beste itxura bat edukiko du.

### **-Kezkatzen al zaitu taldea orain azkenurreko postuan egoteak?**

-Bai, bastante kezkatzen nau. Baina oraindik denboraldia hasi besterik ez da egin eta lan asko daukagu egiteko.

### **-Ba al daukazu denboraldi honetarako helbururik?**

-Direktibak taldea entrenatzeko eskatu dit eta nik baiezkoa eman diot. Ez degu helburuan pentsatu behar. Nik talde bat entrenatzen doten bakoitzean, daukagun hurrengo partiduan pentsatzen det. Hurrengo partidua irabaztea baino ez det buruan edukitzen. Eta horrela egin behar degu tenporada osuan, partiduz partidu joan.

# GE Tda zallushg, lu Kollowigen

J.M Serrano madrildarra eta Igor Lersundi azkoitiarra izan ziren bigarrena eta hirugarrena

*Kokoe Elgoibarko komiki elkarteak bi urtetik behin komiki lehiaketa eta erakusketa antolatzen du. Aurten lehiaketaren txanda izan da. Seigaiñen aldia izan da honakoa marrazkilari elgoibartarrek antolatu dutena. Lehiaketaren sariak eta aurtengo irabazlearen izenak pasa den astean jakinarazi zituzten.*



Joan zen ostiralean, hilak 26, ezagutarazi zituzten Kokoe komiki taldeak antolatutako VI. lehiaketaren irabazleak. Lehen saria Itligo Garcia Agirrezabalaga zumaia-rrak irabazi zuen "Hegaldia" lanari esker. Bigarren saria madrildar batek atera zuen, J. M. Serranok, Leganeskoak, "La victima" komikiarengatik. Hirugarren saria, berriz, Elgoibartik gertu gelditu zen, izan ere, Igor Lersundi azkoitiarrarentzat izan baitzen. Bere lana "Los Crapula" izenburukoa izan zen.

Azkenik, saritu gabeko euskarazko lan onenarentzat akzesita ere bazegoen eta natar batek irabazi zuen. Hain zuzen, Kemen Pumar lesakarra, "Amaieraren hasiera" komiki lanarengatik.

Aurtengo epaimahaia, Antxon Alvare-

*Aurten aurreko urteetan beste partehartzaile izan ditu lehiaketak, 30 inguru. Argazkian, makurtuta, irabazleentako bi ageri dira.*

zek, Kokoeko presidentek, Jose Maria Montejok, Jokin Martinezek eta Alberto Garciak osatu dute.

Bestalde, lehiaketa honetara aurkeztutako komiki lanak ikusgai izan ziren Kultur Etxean igandera bitartean. Kokoe taldekideen ohitura da, aurkeztutako lanak erakusketan batean elgoibartarren aurrean bistaratzea. Aurten ere, lehiaketarekin batera hala egin zuten eta esan bezala, igandean bukatu zen erakusketa ikusteko aukera.

## 011igarri Zine Klub-a azaroaren amalran edu ahenduan hasiko da filmak ematen

Adarazaroaren bukaeran edo abenduan hasiko da Ongarri Zine Klub-aren udazken-neguko zine denboraldia. Zinezale elkarteak eta Udaleko Kultura Sailak elkarrizketan dihardute akordio berria sinatzeko, aurretik zegoen akordioa bukatu egin baitzen legegintzaldia bukatzearekin batera. Bi aldeak adostasunera heltzeko oso hurbil daude eta ezer okerririk ez bada gertatzen, laster akordiora iritsiko dira. Horri esker, zinezale elgoibartarrek, pelikula komertzialak ez direnak ikusteko aukera edukiko dute berriro ere.

Izan ere, berezkoa duen bezala, Ongarrik zine klubaren izaerari eutsiko dio aurrerant-

tzean ere. Bere filosofiar jarraituz, azken hiru urtetan Elgoibarko elkarte honek 75 filme eman ditu eta 120 saio inguru eskaini ditu, pelikula batzuk ostegunetik eta ostiralez errepikatu direlako orain artean. Pelikula horien artean, denetarikoak ikusi ahal izan dira; bai jenero ezberdinetakoak eta baita herrialde ezberdinetakoak ere, Japonia, Frantzia, Txina, EEBBak, Iran, Errusia, Holanda edota Euskal Herrikoak adibidez. Saio guzti hauetan, jendearen erantzuna, pelikularen arabera, ezberdina izan bada ere, argi gelditu da elgoibartarrek Ongarri Zine Klub-aren jardueran babesten dutela.

USIKA



RI

2L

## Indarra eta samurtasuna

Joan zen astelehenean kontzertua eskaini zuen Skunk Anansie taldeak Donostiako Anoetako Polikiroldegian. Hasiera batean, kontzertua Bergarako Jam aretoan izan behar bazen ere, azkenean, jendearen sarrera eskatuzeko eskaria hain handia zenez, tokia aldatu behar izan zuten antolatzaileek.

Ez da lehenengo aldia izan Ingalaterrako talde hau gure artean egon dena, izan ere, aurretik aritu baita jotzen Euskal Herrian. Oraingo honetan, bere azken lana aurkeztera etorri da: "Post orgasmic chill".

Disko honetan, ingelesek beraien estiloari eutsi diote, hau da hard-core melodikoari. 12 kanta biltzen ditu konpaktu honek eta ohikoa denez, abestietan doinu gogorak doinu motel eta lasaiekin tartekatuta dituzte ingelesek. Skin abeslariaren ahots ederra gidari duen talde honek, kordazko instrumentuekin lagunduriko abestiak ere jaso ditu "Post orgasmic chill" honetan. Indarra eta samurtasuna erakusten duen diska da honakoa.

Ion Eugi



**5**  
ostirala

**19:00 GAZTE ASANBLADAREN BILERA**  
Gaztetxean

**22:00 GIPUZKOAKO HERRI ARTEKO BERTSOLARI TXAPELKETA**  
Taldeak  
Azpeitia-Landeta eta Toloxa  
Herriko Antzokian

larunbata

**12:00 ZAZPIKIREN BATZARRA**  
Ganbaran

**19:00 KONTZERTUA**  
"Gaitza" oriotarrak  
Gaztetxean

**19:30-22:15 ZINEA**  
"Cruelles Intenciones"

**7**  
igandea

**9:30 EIBAR-GASTEIZ AUTOPISTAREN AURKAKO MENDI MARTXA**  
Gaztetxe aurrean

**11:30 EUKARISTIA eta SOLASALDIA**  
Gaia: gurasoak egungo familian, gizartean eta elizan  
San Bartolome Parrokian

**16:30 ZIRKORIK TXIKIENA' IKUSKIZUNA**  
Herriko Antzokian  
Euskaraz

**19:00 ZINEA**  
"EstaciOn central de Brasil"  
Gaztetxean

**19:30-22:15 ZINEA**  
"Cruelles Intenciones"

**8**  
astelehena

**22:15 ZINEA**  
"Cruelles Intenciones"

**1**  
asteazkena

**19:30 HITZALDIA eta EZTABAIDA**  
Gaia:  
**GIB** tratamenduak eta honen ondorioak  
Zazpiki Irratian  
Antolatzailea:  
Errotatxo Elkarte

**12**  
ostirala

**21:30 ZINE FORUMA**  
"Mas fuerte que su destino"  
Hizlaria:  
Eskarne Larrinaga  
hezitzaile eta sexologoa  
Kultur Etxean  
Antolatzailea:  
Haizea Emakume Taldea

**22:30 ANTZERKIA**  
Antzezlanak:  
"Un follon de testamento"  
Taldea: Algara  
Antolatzailea:  
Errotatxo Elkarte

III R •• RI • IK RI ■ ••• IR •• 111 IR 11 •••• 11 ••••

ZINEA



Zuzendaria: Roger Kumble.  
Antzezleak: Sarah Michelle Gellar,  
Ryan Phillippe, Reese Whitterspoon.

**Cruelles Intendones**

Courtek, Kathryn bere neskalagun manipulatzailea utzi berri du, Ceciletaz maitemindu baita. Kathryn asko haserretuko da eta mendekuan besterik ez du pentsatuko. Bere mendektia gauzatzeko, Sebastian bere anai ordekoari Cecilen izen ona zikintzeko eskatuko dio, bide batez Court umiliatuz. Orain arte, Sebastianek nahi izan dituen neska guztiak bereganatu ditu, baina Cecile ez da beste guztiak modukoa.

•••• 111 •••• EI ZI •• RI • 111 IR IR ••••• ■ •• IR •



• **Eukaristia eta solasaldia San Bartolome elizan**

Igandean, hilaren 7an, goizeko 11:30etan San Bartolome elizan, eukaristia eta solasaldia izango da "Gurasoak egungo familian, gizartean eta elizan" gaiaren inguruan. Hizlariak, Usurbilgo San Salvador Parrokiako Lourdes Aranzastroke eta Eustakio Arrojeria izango dira.

• **Errotatxoren HIESari buruzko Prebentzio Astea**

Urtero bezala, Errotatxok HIESari aurre hartzeko ekitaldiak antolatu ditu. Ekitaldi horiek asteazkenean, hilaren 10ean hasiko dira. Egun horretan, arratsaldeko 7:30ean, hitzaldi-eztabaida izango da Zazpiki Irratian, "G.I.B. tratamenduak eta bere ondorioak" gaiaren inguruan. Hizlariak, Miguel Angel Von Wichmann (Arantzazu Ospitaleko Barrutiko ineditua), G.I.B. tratamenduetan aditua eta bi HIESdun pertsona izango dira. Ostiralean, hilaren 12an, gaueko 10:30ean, antzerki saioa izango da Herriko Antzokian. Zarauzko Algara taldeak "Un follon de testamento" antzezlan eskainiko du. Azkenik, prebentzio hestea amaitzeko, larunbatean, eguerdiko 13:15etan, Herriko Plazan, Elgoibarren HIESak jota hil direnen aldeko ekitaldia izango da. Bertan Haritz Dantzari taldeak parte hartuko du eta txalaparta ere izango da entzungai. Ondoren, bildutakoek giza katea egingo dute.

• **Haizea emakume taldearen bideo foruma Kultur Etxean**

Haizea emakume taldeak video-forum-ak antolatu ditu azaroan. Hasteko, ostiralean, hilaren 12an, Kultur Etxean, gaueko 21:30ean, "Mas fuerte que su destino" pelikula eskainiko dute. Ondoren, Eskarne Larrinaga, terapeuta eta sexologoarekin hizketaldia izango da. Hilaren, 26an, berriz, leku eta ordu berean, "Moll Flanders" izango da emango duten filmea eta jarraian Eskarne Larrinaga izango da berriz hizlari. Filmeak aitzaki izan nahi dute ondoko gaiak lantzeko hizketaldietan: sexualitatea, bikote harremanak, gizarte rola, pertsonaren garapena...

• **Salsa, Merengue eta Cha Cha Cha ikastaroaren hasiera Azkena dantzalekuan**

Larunbatean, hilaren 6an, Salsa, Merengue eta Cha cha ikastaroa emateari ekingo dio Arlen-ek Azkena disko-terekin (lehengo Guass). Eguerdiko 12:00etan hasiko da dantza hauek irakasten dantzari kubatarra. Aurrerantzean astearte, ostegun eta larunbatetan izango da ikastaro hau.

• **Hontzertua eta zinea asteburuan Gaztetxean**

Gazte Asanbladak prest ditu asteburu honetarako ekitaldiak. Larunbatean, arratsaldeko 19:00etan Orioko Gaitza punk taldeak kontzertua eskainiko du. Igandean, hilaren 7an, goizeko 9:30etan Gaztetxe aurrean bilkura egongo da, hanlik Bergarara joateko, bertan mendi martxa egingo baita, Eibar-Gasteiz autopistaren aurka protestatzeko. Arratsaldean, azkenik, 19:00etan, "Estacion central de Brasil" filmea egongo da ikusgai.



• **Oleo ikastaroa Egur arte tailerrean**

Oleo ikastaroa emango du Egur arte tailerrak azaroaren 10etik 30era arte. Ikastaroak 30 orduko iraupena izango du eta eskolak bi orditakoak izango dira, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara. Arte moeta hau ikasi nahi duenak Egur arte tailerrean eman dezake izena, Ubitarte plazan (lehen Ikastola izandakoa), arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara. Ikastaro hau Udalak diruz lagundutakoa da.

**T X A N D A K**

**FAR MAZIAK**

- Eguez      Gaez
- 6      Yudego Yudego
- 7      Yudego Yudego
- 8      Zabaleta Zabaleta
- 9      Etxeberria Etxeberria (Errosario kalean)
- 10      Escala Escala
- 11      Yudego Yudego
- 12      Etxeberria Etxeberria (Santa Ana kalean)

ESCALA: Rekalde, 1 Soraluze, Tel: 943 75 16 38  
 J. IGNACIO FERNANDEZ  
 Herriko enparantza 4,  
 Garagarza. Tel: 943 75 61 12  
 ZABALETA: Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 943 75 13 84

**OKINDEGIA**

7 igandea Eizagirre

**OHARRA:**

Merkatu txikirako oharrek asteazken eguerdia baino lehenago ekarri behar direla gogorarazten dizuegu.

**Lana**

• **ESKAINZA**•

Astehukaeretan zerbitzari bat eta sukaldean laguntzeko pertsona bat behar da. zr 943 76 22 68

• Neska behar da taheman lan egiteko astean zehar, ir 943 74 04 90

♦ Emalanne euskalduna hehar da emakurne edadeturaz zaintzeko eta etxeko lanak egiteko.

ti• 943 74 24 23  
(14:00etatik 21:00etara) Jesus,

• **ESKAERM**

• Etxeko lanak eta garbiketarak egiteko emakumea eskaintzen da. zr 609 52 68 69

• Umeak zaintzeko emakumea eskaintzen da. Tr 943 74 27 41

• Neska eskaintzen da goizez lan egiteko. zr 943 74 29 73 (goizez, Andone)

**Partikularrak**

• Dibujo Teknikuko klaseak emateko pertsona behar da. sz 943 74 07 47 (Nerea)

• Unibertsitari talde bat Mendaroko ikastolako haurrei eta ESOKo ikasleei laguntza klaseak emateko prest dago. Prezio merkeak, talde murriztak eta arreta berezia. w 943 75 61 70 (Alaitz)  
Tr 943 75 61 90 (Ziortza)

• Matematika, Fisika eta Kimikako klase partikularrak ematen ditut. Baita LOGSEko 1. eta 2. mailak, eta Hezkuntza profesionala ere. Talde nuariztuak, 4 edo 5 ikaslekoak. Esperientziaduna (Injeneru indutrialak). zr 943 74 13 11 (Javier)

• EGA eta First Certificate tituludun Injinerutzako ikasleak LH, DBH eta LOGSEko ikasleei klase partikularrak emango nizkielte. tr 943 74 39 69 (Celia)

**Bestelakoak**

• Marshall amplifikagailu bat (100W-koa), Ibat3ez SG/54(1 kitarra eta oraindik estreinatuta gabeko ahots tnalta bat saltzen ditut. iy 943 74 40 87

• Mintxetatik kiroldegirako bide tartean Errealeku txandalaran txaketa galdu nuen duela pare bat aste (10 taila). a 943 74 37 94

• Coeker Spaniel beltza oparitzen dut ezin dudalako zaindu. 9 urte ditu, oso lasaia da, maitagarria eta oso ondo hezitua dago. z 943 74 42 55

• Zilarrezko pultsera bat aurkitu nuen duela 2 hilahete. Naikari eta 98-10-30 dauka idatzita. 11. 943 74 31 41 (gauzez deitu)

• Urrezko eraztuna(zigilua) galdu dut Santa Ana kale inguruan, 11. 943 74 13 21

• 'Ira leike' Mendaroko aisialdi taldeak hurrengo altzariak hartuko litzuzke: buzoia, armairua, pertxeroa, paragueroa, apalak... Gu pasatuko ginatete materiala jasotzera. Idoia zr 943 75 61 21

• Larunbatean hilak 9, urrezko kate bat galdu nuen. "Y" bat dauka. Mesedez, oso garrantzitsua da. Norbaitek aurkitzen badu, deitu 943 75 62 45 telefonora.(Yuli)

• Perla urdina daukan urrezko eraztuna aurkitu nuen eta parrokiako sakristian utzi dia. Bertan pultsera hat eta erloju bat ere badaude.

• Merkatuan denda berritua traspasatzen da, zr 943 74 25 17

• Irailaren 26an,Aubixatik San Pedrorako bidean ume baten jertsea aurkitu nuen. Udaletxera eraman dut.

• Gaztetxerako sofak edo butakak behar dira. Butaka edo sofa zaharrrak badituzu botatzeko, jani Gaztetxekoekin kontaktuan. Eurak arduraturako dira jasotzeaz, zr 943 74 35 72

• Neska talde batek dantz,a kontemporaneo edo jazz estiloko dantzak erakutsiko lizkioken pertsona bat behar du. n• 943 74 18 06

**Garajeak**

• Manadun garajea saluen da pista beitzean. Er 943 74 00 89 (Asteguuetan eta 21:00etatik aurrera deitu)

• Garaje itxia hartuko nuke alokairuan Arregitorren, Te 943 74 15 16

**Etiiebizitzak**

• Pisu txikia behar dugu Elgoibarran, logela hat edo bikoa. tr 943 74 41 77 (gauzez deitu)

• Etxe bat alokatzen da Ubitarteko plazan.u. 943 74 03 41

• Pisu txikia eta ekonomikoa behar dut alokairuan. tr 630 21 64 22 (Jesus)

• Pisua saltzen da Santa Klaran 24 zkia -5B. zr 943 74 32 98

• Etxebizitza behar dut Elgoibarran lehen bait lehen. 12 943 70 11 93 (21:00etatik aurrera deitu )

• Pisua saltzen dut Santa Ana kalean, guztiz berritua. .21 943 74 05 14/626 23 75 70 (17:00etatik aurrera)

**Salerosketak**

• 5 urteko neskatoarentzat base-rritar soinekoa erosiko nuke. n• 943 74 29 27

• Bizirik dauden ahate ederrak saltzen dira. tr 943 74 31 02

• Nintendo 64 kontsola saltzen da. 2 mando eta 5 jokurekin. Egoera onean. is 943 74 46 46 (13:00etatik 14:00etara, Josu)

• Karabana eta Puch motoa saltzen ditut. ir 943 74 41 41 (atratsaldetan)

**Agurrak**


• Zorionak Isabei Bermejori azaroaren 2an urteak bete zituelako. Salegiko taldearen partez, eta bereziki utneen partez.

• Zorionak Patricia Nabori azaroaren 6an urteak heteko dituelako. Familia guztiaren partez.

• Zorionak Javierrri urtebete beteko duelako asteazkenean, hilaren 10ean. Amatoaren, aitatxorea eta familia guztiaren partez.



• Zorionak azaroaren 7an urteak beteko dituelako. gura-soen eta anai-arreben partez. Muxu haundi hat iloba Soraya eta Desideren partez ere.



• Zorionak Jaimeri azaroaren 8an 2 urte beteko dituelako, Estihalizen partez.

• Zorionak Nuriari gaur. azaroak 5, 15 urte betetzen dituelako. Familiaren eta Ainhoaren partez.



• Zorionak Nereari azaroaren 9an 4 urte beteko dituelako. Gura-soen, aizpa Elorriren eta leherigusu Kepa eta Befiaten partez.



• Julen eta Maialen, igandean, hilaren 7an, bakoitzari 9 tirakada belarritik emango dizuegu zoriontzeko eta orain arte bezain



"formalak" izaten jarraitzeko. Familiaren panez.

# BIKAIN

## AHOLKULARITZA

BAZKIDE  
2000 ko KIDEA  
(C.D. ELGOIBAR)



*gwie delumzept analleitaled ayteit&ta*

5414t



ASKALA.LABORALA.KONTABLEA

Antonio Arrillaga, 4 behea  
Tel. 943 74 45 57  
Faxa: 943 74 04 08  
20870 Elgoibar  
Gipuzkoa

### ▶ Aholkularitza eta kontsulta zerbitzua

( Kontablea

( Fiskala )

( Lan arlokoa )

( Juridikoa


( Merkatal Firlokoa )

### ▶ BidEragarritasun planak

### ▶ Aseguruak

### ▶ Agentzia bidEzko banka zerbitzua

# LEIHOAK ISOLATZEN DITUGU



**GLASHER** ®  
ALTZAIRU INOXIDABLEZKO  
BURLETEAK dira, leihoa  
isteaz bat, tentsatu eta  
zirrikitu guztiak estaltzen  
dituztenak, haizea, hotza,  
hautsa eta zarata eragotziz.

Haizea, holza, hautsa eta zaraten kontra

11,» -/urregaperá o Ipintzeko azkarra eta garbia @ Behin-betiko iraupena

# INPERMEABILIZANTEEN ATALEKO SAILA



**Soluzioa, ziku-zikuan**

Hezetasun arazoak terrazetan, estalkietan, sotoetan,  
garaieetan, hormetan, etab.

Transitableak, elásfikoak, transparenteak, dekoratiboak.



**gcs**  
Isolamenduak

Informazio gehiago:

Te1, 943 74 30 94 943 74 43 54

Olaso 27 . 47 pabilioia. Elgoibar